

MU-ko ikasleek 16th International Stirling Engine Conference-an hartu dute parte

2014/09/30

Industria Ingeniaritzako Masterreko ikasleek unibertsitateko laborategietan prototipo funtzionalak diseinatu eta eraiki dituzte, industria-ingeniaritzaren egiazko testuinguruan garaturiko ikaskuntzako prozesu sakon eta eraginkor baten bitartez. Amaitzeko, lan-parametro guztiak neurtzeko eta ikusteko sentsoreak jarri dira. Horrek motorra hobeto ulertzeko aukera eman die. Aldi berean, motorren birabarkieiei sorgailu bat konektatu zaie, sorturiko energia eta horren eraginkortasuna neurtzeko.

Bilbon egin den Stirling Motorren Nazioarteko Biltzarrean erakusteko aukeratu dute garaturiko motorrik eraginkorrena. Alvaro González ikasleak biltzarreko txostenetako batean garaturiko lana aurkeztu du. Biltzarrean Stirling teknologiaren eskutik eraginkortasun energetikoaren inguruan lanean dabilzan enpresarik, teknologia-zentrorik eta unibertsitatearik garrantzitsuenek hartu dute parte.

Gainera, Mondragon Unibertsitatetik mahai-inguru batean parte hartu dute, Ingalaterrako, Italiako eta Taiwango beste unibertsitate batzuetako ordezkariekin eta ikertzaileekin batera, ikertzaileen eta teknologoien ikaskuntzarako tresna gisa Stirling motorren aparteko ahalmenari buruz hitz egiteko. Gaur egun, Stirling teknologia eskakizun handiko sektoreetan erabiltzen da, hala nola, sektore aeroespazialean, NASAn eta arlo militarrean.

Mondragon Unibertsitatea proiektuak eta arazoak konpontzean oinarrituriko hezkuntza-eredua ari da arrakastaz inplementatzen. Iazko, 2013-2014ko, ikasturtean Industria Ingeniaritzako ikasleek diziplina anitzeko proiektu bat garatu zuten, hainbat ezagutza-alor barne hartzen zituen: Ingeniaritza Termikoa eta Jariakorra, Teknologia Elektrikoa, Ingeniaritza Energetikoa eta Industria Segurtasuna. Mikrosorkuntzako Stirling motorraren modelo bat diseinatzea eta eraikitzea zen helburu nagusia. Ikasleek proiektua garatzeko taldeak sortu zituzten. Prozesuan zientzia- eta teknologia-alorreko gaitasunak eta talde-lanerako eta proiektuen kudeaketarako gaitasunak neurtu dira.

